

# Edozein aitzakia aurrekua dantzatzeko

**Oso ohikoa bihurtu zaigu aurrekua dantzatzea; beharbada, gehiegitxo dantzatzen da. Edozein aitzakia erabiltzen da aurrekua baten bati dantzatzeko: ezkontza eta hiletetan, inaugurazioetan... Gai horren inguruan jardungo dugu sekuentzia honetan.**

Sekuentzia honetan jarduera hauek egin ditzakezu:

- Audio bat entzun eta galderei erantzun.
- Audioaren transkripzioko testua osatu.
- Beste audio baten laburpenik egokiena aukeratu.
- Entzundako pasadizo bat zehar-estiloan kontatu.



## Egia ala gezurra?

Entzun Oier Araolaza dantzariari egindako elkarrizketa, eta esan ondoko esaldiak bat datozen ala ez berak esandakoarekin.



	Egia	Gezurra
Aurrekulariak botatako txapela jasotzea modan jarri zen errege batek hala egin zuenetik.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Oierren ustez, aurrekua talde-dantza izatetik bakarkako dantza izatera pasatzera kalte handia izan da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Aurrekua dantzatzea -gaur egunean dantzatzen den bezala- aspaldiko kontua da; duela mende bat ere antzera dantzatzen zen.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Lehen aurrekua talde-dantza baten barruan sarturik zegoen.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Aurrekuak beste izen batzuk ere baditu, esaterako, soka-dantza.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Lehen ere ohore handia zen norbaitek beste norbaiti aurrekua dantzatzea, oso jende gutxiri egiten baitzitzaion.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

<https://labur.eus/SlwvC>



## Testua osatzen

Hemen duzu audioaren transkripzioaren zati bat, baina hitz batzuk falta dira. Osatuko al duzu testua?

OIER ARAOLAZA. Iruditzen zaidana da inportantea dela konturatzea, ez? \_\_\_\_\_ 1 \_\_\_\_\_ noiztik egiten da hau? Bueno, nik pentsatzen det (dut) azken 40-50 urteetako \_\_\_\_\_ 2 \_\_\_\_\_ dela dantzari bakar batek hau horrela egitea, baina aurrekua, aurrekua, \_\_\_\_\_ 3 \_\_\_\_\_, dantza bezala, gaur egun ezagutzen dugun dantzari bakar bat hori egiten, hori da zatitxo bat dantza zabalago batena. Hori da, aurrekua ere deitzen zaio, baina soka-dantza bezala ere ezaguna da: soka-dantza, dantza-soka, esku-dantza, gizon-dantza, neskatxan dantza... \_\_\_\_\_ 4 \_\_\_\_\_ katean, eskuz esku, egiten den dantza bat. Eta justu, \_\_\_\_\_ 5 \_\_\_\_\_ bueno, egin dena da aurrekua izango litzateke soka horretan aurreko eskua, aurre-eskua, esku-dantza horretan aurreko eskua. Eta hori da askatu dena soka horretatik eta soka guztia galdu da eta geratu da bakarlariaren papera.

\_\_\_\_\_6\_\_\_\_\_ niretzat garrantzitsuena dena da kontuan hartzea soka-dantza horretan ohorea, benetako ohorea, dantzan bertan parte hartzea zela; hau da, ez norbaitek zuri dantza egitea, \_\_\_\_\_7\_\_\_\_\_ zu dantzaren parte izatea eta zuk zeuk ere dantzatzea. Hor gertatu den aldaketa, hau da, batetik kolektibotik indibidualera, hau da, dantza kolektibo bat geratu da dantza indibidual bezala, eta nik uste dut galera galanta izan dugula. \_\_\_\_\_8\_\_\_\_\_ taldean edo eskuz esku dantza egitetik ba ni geldi egotera eta bakarlari batek bere, ez dakit, gaitasun tekniko eta gimnastikoak erakustea nire aurrean... Hor gertatu den aldaketa horretan nik uste dut kulturalki, koreografikoki, tradizionalki, sinbolikoki... ba euskaldunok \_\_\_\_\_9\_\_\_\_\_ itzela izan dugula.

(1)

Hala eta guztiz ere,  
Esan nahi dut,  
Beraz,

(2)

galdera  
kontua  
asuntoa

(3)

beraz  
horregatik  
beraz

(4)

Ondorioz,  
Hau da,  
Esaterako

(5)

dirudienez,  
laburbilduz,  
hain zuzen ere,

(6)

Horrela  
Orain  
Baina

(7)

baina  
baizik eta  
Are gehiago

(8)

Eta besterik,  
Eta bestetik,  
Eta horrenbestez,

(9)

erronka  
galera  
onura

## Laburpenik egokiena

[Oier Araolaza dantzariak berari gertatutako pasadizo bat kontatzen du audio honetan.](#)



<https://labur.eus/IDeqm>

**Entzun audioa eta aukeratu laburpenik egokiena.**

- Bi egoeretan barregarri sentitu zen: batean autoritateen aurrean behin baino gehiagotan dantzatu behar izan zuelako, eta beste batean inaugurazio batean.
- Bi egoera kontatzen ditu ridikulua sentitu zuena: bata autoritate baten aurrean hiru aldiz dantzatu behar izan zuena, eta bestea eskailera gainean dantzatu behar izan zuena.
- Bi egoera aipatzen ditu. Batean, denbora luzez itxaron behar izan zuen aureskua dantzatzeko autoritateek berandu agertu zirelako. Bestean, eskailera mekaniko bati dantzatu ziolako aureskua.

## Kontatu pasadizoa

Demagun kontatu behar diozula lagun bati Oier Araolaza dantzari gertatu zitzaion pasarte hori. Nola egingo zenuke?

[Laguntza gisa, hemen daukazu bere kontaketa. Zuk zehar-estiloan kontatu behar duzu. Bukatutakoan, konparatu zure bertsioa ereduarekin.](#)

ESATARIA. Ridikulurik sentitu al duzu inoiz aureskua dantzatzean?

OIER ARAOLAZA. Askotan. Adibidez, gogoratzen dut behin Eibarko auzo bateko frontoia berritu zen eta horren inauguraziorako deitu zidaten dantza egiteko. Eta han joan nintzen. Pixka bat beroketak egin eta prestatu nintzen, eta halako batean: "badatozela, badatozela". Txistulariei abisatu eta hasi nintzen dantzan keinu egin zidatenean. Eibarko alkatea zen, eta nik pentsatzen nuen "Hori izango zen etorri beharrekoa". Etxerantz nindoala, "Itxoin, itxoin, diputatu nagusia falta zen eta oraintxe iritsi da". Eta, bueno, berriz ere jarri han eta dantzatu nuen aureskua. Hamabost minutura, hirugarren aldiz, gotzaina etorri zenean ere dantzatu nuen aureskua. Honek ze zentzu dauka?

## Erantzunak

### Egia ala gezurra?

	Egia	Gezurra
Aureskulariak botatako txapela jasotzea modan jarri zen errege batek hala egin zuenetik.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
Oierren ustez, aureskua talde-dantza izatetik bakarkako dantza izatera pasatzera kalte handia izan da.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
Aureskua dantzatzea -gaur egunean dantzatzen den bezala- aspaldiko kontua da; duela mende bat ere antzera dantzatzen zen.	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>
Lehen aureskua talde-dantza baten barruan sarturik zegoen.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
Aureskuak beste izen batzuk ere baditu, esaterako, soka-dantza.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
Lehen ere ohore handia zen norbaitek beste norbaiti aureskua dantzatzea, oso jende gutxiri egiten baitzitzaion.	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>

### Testua osatzen

- |                  |                    |           |
|------------------|--------------------|-----------|
| 1. Esan nahi dut | 2. Kontua          | 3. Berez  |
| 4. Hau da,       | 5. Hain zuzen ere, | 6. Baina  |
| 7. Baizik eta    | 8. Eta bestetik,   | 9. Galera |

### Laburpenik egokiena

Bi egoeretan barregarri sentitu zen: batean autoritateen aurrean behin baino gehiagotan dantzatu behar izan zuelako, eta beste batean inaugurazio batean.

### Kontatu pasadizoa

Esatariak galdetu zion auresku-dantzariari ea inoiz ridikulurik sentitu duen aureskua dantzatzean, eta dantzariak erantzun zion askotan sentitu duela. Gogoratzen duela behin Eibarko auzo bateko frontoia berri zela eta horren inauguraziorako deitu ziotela dantza egiteko. Eta han joan zela. Pixka bat beroketak egin eta prestatu zela, eta halako batean bazetozela, esan zioten. Txistulariei abisatu eta hasi zela dantzan keinu egin ziotenean. Eibarko alkatea zela, eta berak pentsatzen zuela hura izango zela etorri beharrekoa. Etxerantz zihoala, itxoiteko eskatu zioten, diputatu nagusia falta zela eta orduantxe iritsi zela. Eta, berriz ere han jarri eta dantzatu zuela aureskua. Hamabost minutura, hirugarren aldiz, gotzaina etorri zenean ere dantzatu zuela aureskua. Dantzariak galdetzen du horrek zer zentzu daukan?

### Transkripzioa

ESATARIA NESKA. Ez ote den aureskua gaur egun gehiegixko dantzatzen. Askotan ohorea merezi duen inor aurrean eduki gabe ere, ba, dantzatu egiten delako.

ESATARIA MUTILA. Bai. Salaketa egiten dutenek diotenez, ez da bakarrik politikari nagusiren bat datorrenean, e. Izaten da inaugurazioetan, ezkontza eta hiletetan, kiroletako sari-banaketetan... la edozerk ematen du aitzakia auresku bat gidoian jartzeko.

ESATARIA NESKA. Oier Araolaza da gai honi buruz kritiko hitz egin izan duen dantzarietako bat.

OIER ARAOLAZA. Iruditzen zaidana da inportantea dela konturatzea, ez? Esan nahi dut, noiztik egiten da hau? Bueno, nik pentsatzen det (dut) azken 40-50 urteetako kontua dela dantzari bakar batek hau horrela egitea, baina aureskua, aureskua, berez dantza bezala, gaur egun ezagutzen dugun dantzari bakar bat hori egiten, hori da zatitxo bat dantza zabalago batena. Hori da aureskua ere deitzen zaio, baina soka-dantza bezala ere ezaguna da: soka-dantza, dantza-soka, esku-dantza, gizon-dantza, neskatxen dantza... Hau da, katean, eskuz esku, egiten den dantza bat. Eta justu, hain zuzen ere, bueno, egin dena da aureskua izango litzateke soka horretan aurreko eskua, aurre-eskua, esku-dantza horretan aurreko eskua. Eta hori da askatu dena soka horretatik eta soka guztia galdu da eta geratu da bakarlariaren papera. Baina niretzat garrantzitsuena dena da kontuan hartzea soka-dantza horretan ohorea, benetako ohorea, dantzan bertan parte hartzea zela; hau da, ez norbaitek zuri dantza egitea, baizik eta zu dantzaren parte izatea eta zuk zeuk ere dantzatzea. Eta orain azken 40-50 urteetan gertatu den eraldaketa horrekin, ba ez: ohorea da norbera geldi-geldi egotea, hunkitu-aurpegia jartzea edo ez dakit nora begira jartzea...

ESATARIA MUTILA. Eta txapela hartzea.

OIER ARAOLAZA. Eta parean daukazun aureskulariaren txapela hartzea –hori, gainera, oso modan jarri zen, erregeari dantzatu zitzaion auresku baten ondoren–, eta kito! Hor gertatu den aldaketa, hau da, batetik kolektibotik indibidualera, hau da, dantza kolektibo bat geratu da dantza indibidual bezala, eta nik uste dut galera galanta izan dugula. Eta gero bestetik, taldean edo eskuz esku dantza egitetik ba ni geldi egotera eta bakarlari batek bere, ez dakit, gaitasun tekniko eta gimnastikoak erakustea nire aurrean... Hor gertatu den aldaketa horretan nik uste dut kulturalki, koreografikoki, tradizionalki, sinbolikoki... ba euskaldunok galera itzela izan dugula.